

Euskal prentsaren hastapena: oraina eta geroa.
***Eguna* egunkariaren 80. urteurrena**

Bilbon, 2017ko otsailaren 10ean

Kronika

Euskara hutsean egindako lehen egunkariari buruzko jardunaldia egin zen otsailaren 10ean, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, "Euskal prentsaren hastapena, oraina eta geroa" lelopean.

Jardunaldiari harrera egin zioten Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Juan Mari Atutxa Sabino Arana Fundazioko presidentek.

Andres Urrutia euskaltzainburuak bere sarreratxoan nabarmendu zuen 1937ko *Eguna* egin zutenen kemena, hain zuzen, lana garai zailetan egin zutelako, "une gogor haien testigantza jasoz". Juan Mari Aburto Bilboko alkateak 1937ko *Eguna* egin zutenen "ausardia" nabarmendu nahi izan zuen, eta, bide batez, gogoratu zuen gauzak asko aldatu direla euskal hedabideei eta euskarari berari dagokionez. Bilbo adibidetzat jarritz, Aburto esan zuen aurrerapauso handiak egin direla euskararen alorrean, baina onartu zuen oraindik badagoela zer egin. Agindu zuen, hori bai, aurrerantzean ere zeregin horretan tematuko zela bere lantaldea.

Azkenik, Juan Mari Atutxa Sabino Arana Fundazioko presidentek hitz egin zuen. Atutxak "konpromiso" berba erabili zuen behin eta berriz, orduko idazle eta kazetari haiek horixe bera erakutsi zutelako, bere ustez: "euskal kultura eta euskararekiko konpromisoa, bai Primo de Riveraren diktaduran, bai Errepublikara garaietan, eta, zelan ez, Gerra bete-betean".

Jardunaldi honetan, besteak beste, euskara hutsean egindako lehen egunkariaren jarduna gogoratu eta aztertu nahi izan zen, bere sorreraren 80. urteurrenarekin bat eginez. Horrekin batera, euskaraz egiten duten hedabideen geroaz hausnarketa egin zen. Bertan honako adituek parte hartu zuten: Joan Mari Torrealda, Luis Alberto Aranberri 'Amatiño', Joseba Agirreazkuenaga, Xabier Altzibar, Idurre Eskisabel, Jabier Onaindia, Odile Kruzeta, Juan Carlos Ibarra, Adolfo Arejita eta Urtzi Urrutikoetxea.

Joseba Agirreazkuenaga EHuko Historia Garaikide saileko katedradunak *Eguna* egunkariaren aurrekariak aztertu zituen. Halaber, 1937ko urtarrilean jaio zen *Egunaren* sorrerari buruzko datu interesgarriak eman zituen: "*Egunak* modernotasunez jokatu zuen, emakumezkoek ere idatzi zuten, eta ikuspegi historiko handia erakutsi zuten idazle eta kazetari haiek". "*Egunarekin*, ezina egina bihurtu zen", adierazi zuen Agirreazkuenagak.

Xabier Altzibar EHuko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa saileko irakasleak *Egunan* jardun zutenen profilak aztertu zituen, tartean datu argigarriak emanez. "Ehun bat idazle aritu ziren 1937ko *Egunan*; hori kopuru izugarria da", agertu zuen Altzibarrek. Jardunaldi horretan esandakoaren kariatara zera idatzi du Altzibarrek: "Erdarazkoa bezalako egunkari normala izan zen, euskal kazetaritzaren historian lehen aldiz; hau da, azpiegitura finkokoa eta erredaktore eta kolaboratzaile ordainduak zituen." (*Hermes*, 56: 22). Bertan idatzi zutenei buruz, zera dio: "Egiari zor, esan behar da idazleen artean gipuzkoar asko zegoela, idazle asko ez zirela hain gazteak, gehienek ez zituztela neologismoak erruz erabiltzen, eta, gure ustez, *Egunako* euskararen eta gerrraostekoaren eta gaurkoaren artean ez dagoela hainbesteko desberdintasunik." (*Hermes*, 56: 23).

Joan Mari Torrealdai soziologo, euskaltzain eta kazetariak eta Luis Alberto Aranberri 'Amatiño' kazetariak "1986ko Egunerokoak" eztabaidan parte hartu zuten. Moderatzaile, Adolfo Arejita euskaltzaina izan zuten. Aintzat hartu behar da *Deia* egunkariak *Eguna* izeneko astekaria argitaratzeari ekin ziola 1986an, "katea ez da eten" lelopean eta 1937ko egunkariaren gomutaz. Amatiñoren iritziz: "*Eguna* zen 1986an kioskoan aurkitu zitekeen formaturik berriena, itxuraz ez ezik, mamiz ere". (*Hermes*, 56: 43). Torrealdai 1976-1986 bitarteko euskal kazetaritzari buruzko zertzelada batzuk eman zituen, eta, *Eguna* eta *Hemen* astekariei buruz, ondorio nagusi bat atera zuen: "*Eguna* eta *Hemen* astekari-egunkarien saio honetan ikusiko nuke aldi baten bukaera, kazetaritza elebidunaren ustezko arrakastaz eta egunkariaren balizko etorreraz diharduena." (*Hermes*, 56: 55).

Bukatzeko, Idurre Eskisabel eta Iñaki Mendizabal kazetariak, Javier Onaindia Bizkaia Irratiko zuzendariak eta Odile Kruzeta EiTbko irratien zuzendari koordinatzaileak "Hedabideen eta euskararen gaur eguneko erronkak" mahai-inguruan parte hartu zuten. Mahai-ingurua Urtzi Urrutikoetxea kazetariak moderatu zuen. Bertan esandakoetatik zera azpimarratu du Urrutikoetxeak *Hermes* aldizkarian: "Jendearengana heltzeko estrategia berriak landu beharko dira, beste batzuekin batera, administrazioarekin batera, bideak aurkitu jendea geurera ekarri eta sa-

retzeko” (*Hermes*, 56: 63). Euskara hautatzeko beharraz, honako hau nabarmendu du aldizkari berean: “nekez esango diegu hiltun berriei euskaraz bizitzeko hautua egitea, errealitate sozial politiko eta kulturalaren errealitatea bestelakoa denean, eta hor denok pentsatu eta autokritika egin behar dugu (*Hermes*, 56: 65)”. *Eguna* 1937ko urtarrilaren 1ean sortu zen, hau da, Gerra Zibilean, Bilboko Posta kaleko 17an. Sei hilabetez argitaratu zen, harik eta Francoren tropek Bilbo hartu zuten arte. Guztira, 130 zenbaki plazaratu ziren.

BIBLIOGRAFIA:

Sabino Arana Fundazioa, 2017, “Eguna 80 urte” zenbaki monografikoa, *Hermes*, 56. Bilbo.